

Hitzarmen berriaren negoziazioan atzera pausorik EZ!

ELAk ez du onartzen joko bikoitzik ezta akordio ustelik ere

Ekainean Hezkuntza Saila sindikatuokin berriro elkartu da Lan-legepeko irakasle eta Heziketa Bereziko langileen hitzarmenaren negoziazioan pausoak eman asmoz.

Orain arterakoan hiru bilera izan ditugu eta Hezkuntza Sailak bere proposamenean garrantzitsutzat jotzen ditugun hainbat puntu mahai gainean jartzen dituen arren, funtsezko gai batzutan atzera pauso nabarmenak planteatu dizkigu.

Guztiok gogoratuko duzue zeintzuk diren ELAn funtsezkotzat jotzen ditugun aldarrikapen nagusiak. Aldarrikapen hauek gaitera, beti ere norberaren nabardurak-nabardura, LAB eta STEE-EILAS sindikatuekin adostutakoak izan dira.

1. **Jarduna:** Asteko lanaldia finkatzea izan dugu helburu. Honetan, sindikatuon artean 35 orduko asteko jarduna aldarrikatzea adostu genuen, negoziazioan ordu kopuruan negoziazio marjina egon zitekeela onartu arren.
2. **Ordezkoen uda kobraketa.**
3. **Soldata igoera.**

Hiru aldarrikapen nagusi hauei dagokionez Hezkuntza Sailak honako proposamen hau jarri digu mahai gainean:

Jarduna:

*"Dentro de la jornada anual se establece una jornada semanal de 37,5 horas, que deberá estar completamente implantada para el comienzo del curso 2012-2013. Durante el curso 2011-2012, cuando necesidades objetivas lo exigieran, dicha jornada podrá ampliarse hasta las 40 horas, horario que sólo muy excepcionalmente podrá realizarse a **partir de dicha fecha** con el régimen compensatorio que se establece en la Comisión Paritaria."*



Bestalde materiala prestatzeko, koordinaketa bilerak egiteko, etab. hilabeteen genituen 10 orduak kendu eta urte osoko 110 ordu poltsa bakarra proposatzen dute. Zein helbururekin? Hilabeteroko ordu hauek kendu eta ondoren udan pilatzeko?

ELA-K ez du inondik inora onartzen jardunari atxikitua doan testu hau.

Zergatik? Erredakzio honek manipulazio ugari ekar ditzakeelako eta salbuespen kasuak ohiko eginez, orain kasu askotan moduan, asteko jardunak 40 ordu edo gehiagokoak izaten jarraitu dezake. Beraz aldaketa gutxi eta manipulaziorako bidea irekia. Zer da "excepcionalmente"? Eta zein datatik aurrera? 2012 edo baita 2013tik aurrera ere?

Eta zergatik LAB eta STEE-EILASEk adosturiko 35 orduko asteko jarduna ez dute beraien aldarrikapenetan sartu? Zergatik ematen dute amore ia negoziaketa hasi baina ere lehenago?

Uda kobraketa

Hezkuntza Saila prest omen dago aldarrikapen hau aintzat hartzeko, baina ELA-k eskatzen duen baldintzetatik oso urrun.

Zergatik? ELA-k 2 hilabete kobratu, kotizatu eta puntuatzea eskatzen du eta Hezkuntzak lan egindako egunei dagokien likidazioa besterik ez du eskaini nahi.

Zer esan nahi du honek? Ordezkoek lan egindako egunen kopuruaren aldea soilik jasoko duela, baina inola ere ez beti bi hilabete osoak, ezta hilabete horietako gizarte segurantzako kotizazioa ezta hilabete horiei dagozkien puntuak.

Soldata igoera

Hezkuntza Sailak eta LABek ez dute aipamenik ere egiten soldataren inguruan eta STEE-EILASEk oso modu arinean. Zergatik?

ELAn zera eskatzen dugu: Edozein kategorietan gutxieneko igoera KPI + 1. Egiten dugun heziketa lanaren errekonozimendu bidean maisu-maistren soldataren %85 eskatzen dugu.

Eta aldarrikapen hauetan bermeak eskatzen ditugu. Kontutan hartuz Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuarekin 2011ko aurrekontuak murriztea adostu duela batetik, eta «defizita» (gastu sozialerako inbertsioa) ere jaistea hitzartu dutela (BPG-ren %1,3 2011 eta 2012an, %1,1 2013an eta %1 2014an), lan jarduna, uda kobraketa eta soldaten inguruko akordio posible baten aurrean, zein berme eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak hori beteko duela? Zenbateko inbertsio handitze eskatzen dute honelako neurriak benetan aintzat hartzeak eta 2012ko aurrekontuetako zein partidetan jasotzen da hori?

Fisioak logopedak eta terapeutak

Fisio eta Terapeutei dagokienez, orain arte onartzen zitzaien Lehen Hezkuntzako Irakasleen antzeko jarduna (bataz beste astean 30 ordu). Orain ordea, Hezkuntza Sailak 37,5 orduko jarduna inposatu nahi die. Zer dela eta mehatxu hau?

Itinerantziei dagokionez ere (beste gaietan moduan), atzera pauso nabarmena jarri dute mahai gainean.

ELAn ontzat ematen ditugu Fisio, logopeda eta terapeutei soldatetan ematen zaien homologazioa, baina guztiz onartezina iruditzen zaigu jardunari dagokion planteamendua.

Hau da orain arte Eusko Jaurlaritzak eskaintzen diguna eta hainbeste urte hitzarmenik eta negoziatorik gabe egon ondoren ELA-k ez du atzera pausorik onartuko kolektibo honetarako.

Bada garaia, gurea dena jasotzeko eta kolektibo hauei merezi duten duintasuna aitortzeko.